


UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/05/22) Hurrengo saioa: 2018/06/05	Nafarroako Itsasoarren bisita eta 600en topaketa.	Egitaraua aurrera eramateko dena ondo lotua dagoela ziurtatu da.	
	Gazte eta nerabeentzako udalekuak	Aurtengo data zehaztu da, ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango da. Aste bakoitzeko ekimen ezberdin bat aurreikusten da, ekimenak kirola, keramika, hipika eta robotika izango direlarik. Aurten ekimen bakoitzak dituen monitoreez gain, udaleku guztietarako zaintzaile bat kontratatzea adostu da, bai autobusean laguntzeko eta bai txikienen zaintzarako.	Lurraldebus-i autobus eskaria luzatu. Zerki, Doplay eta Ibur-i eskaria egin. Zaintzaile egoki bat bilatu.
	Pertsona nagusi autonomoei zuzenduriko asteko zerbitzua	Gizarte langileak aztertu du dauzkagun proposamenak eta forma ematen asmatu behar dugu guztiokin landuz, irailean indarrean jarri ahal izateko	Daukagun informazioa partekatu eta ekimena lantzen jarraitu.
	Ekaineko ekimenak	Gure esku dago, San Juanak, ikastaroak, tailerrak	Hurrengo batzordean zehaztu eta deialdiak bideratzen hasi

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 05/29) Hurrengo saioa: 2018/06/12)	Formazio eta ikastaroak	<ul style="list-style-type: none">- Euskara ikastaroa: izen ematea amaitu da eta eskaerak egon dira.- BBB (bihotz biriketako bizkortzea) ikastaroa: guk proposatutako datak onartu dituzte. Bi saio izango dira (ekainaren 28an eta uztailaren 5ean, 18:00etatik 20:00ak bitartean).- Argitu tailerra: argindarraren faktura irakurtzen ikasteko tailerra. Ordu beteko iraupena. Proposatu dizkiegun datak: ekainak 25 edo 29.	<ul style="list-style-type: none">- Beraiekin adostu zein ordutegi datorkien hoberen eta, ahal den neurrian, herriko norbait topatu ikastaro hau emateko.- Beraiek eskatzen dituzten materialak eta lekua prest izatea eta herritarrei parte hartzeko gonbita luzatzea.- Data finkatu eta herritarrei gonbita helarazi.
	Udalekuak 2018	Udalekuen eskaintzaren jakinarazpena osatu dugu. Ekintzen eskaera asteka egiteko aukera emango da.	Dauden eskaerak jaso eta sozio-kultural batzordeari pasa.



	Alegiko obren inaugurazioa eta Musika emanaldia	Bi ekimen hauek bateratu nahi dira baina oraindik data zehazteko geratu da, obraren amaiera eguraldiaren baitan baitago.	Ormaiztegiko musika eskolakoekin hitz egin eta, ahal bada, uztailaren 3.asterako eguna finkatu.
--	---	--	---

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOAK	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/05/30) Hurrengo saioa: 2018/06/13)	Alegiako obra	Komunen bentilaziorako rejillak jarriko dira. Elkarteko pareta ere margotuko da. Eguraldi onarekin hormigoi inpresoa bernizatuta utziko da. Elizatariko eserlekuari egurra jarriko diote arotzek eta beraiekin adostuko da nola nahi den.	Obra bukatutakoan frontoia garbitzeko "karcher" industrialen aukera badago herrian eta eskaini dira
	Alegian zebrabidearen eskariaren aurrean	Bisibilitate nahikoa ez dagoela argudiatuz, Foru Aldundiak ez du zebrabiderik onartzen. Horren ordezt, baden handiak eta seinaleak. Baloratu beharko da komenigarriak diren ala ez. Bestalde, Landanetik Ostatzuzarrera doan pretilaren lekuan espaloia egitea posible dela ikusten da.	Planteamendu guzti hauek Herri Batzarrean landuko dira herritarron iritzia ezagutzeko
	Leader 2018	Mirian Otamendi arkitektoak partekatu du udaletxearen egoitzaren proiektua	Justifikazioa erantsi behar zaio deialdira aurkezteko
	Zuntz optikoa 2000 metrora	Foru Aldundiak Telefonikarekin hitzarmena sinatu du zuntzaren zabalkunde hau egiteko, herritarrek eskaera egiten duten heinean. Udalak ahal den etxe guztietara gerturatzea bultzatuko du, izan ere, urte gutxitara beharrezko izango baita Telebista ikusteko ere.	2000 metroko erradioan dauden etxeen zerrenda egingo da
	Elormendi-Ariola	Tramo horretan bi hodi jarri behar dira urak bideratzeko.	Ariolako bidea hormigoitzen bukatzeko lanekin batera egin dezake Gainera enpresak



ITSASOKO

UDALA

(GIPUZKOA)

	Goiko Ostatuari erreteila	Itukinak antzeman direnez, sakristi azpitik ateratako teilak aprobetxatuz erreteila pasada ematea beharrezko ikusi da	Gorrotxategiri egiteko eskatuko zaio
	Itturritatik Altzigarraga bidea	Aurtengo urek bidean todounoa dezente hondatu duenez, 3 kamioikada beharko direla aurreikusi da.	Narraspek traktorearen palaz zabalduko du